

## IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriez hitz egitean, proiektua eskaini ondoren izango ditugun diru sarrerez hitz egingo dizuegu, irabaziez alegia. Hauek gure lan guztiaren erakusle dira, eta gure soldatak eta taldekideenak zehaztuko ditugu enpresaren irabaziaz zenbatekoak diren argitzeaz gain.

Kostuen ataletan aipatu dugun moduan, bakoitzak 500€ jarriko ditugu hasieko laguntza moduan. Gure proiektuari hasiera bat emateko diru apur batekin hasiera komeni zaigu hasierako inbertsioei aurre egin ahal izateko. Gure zerbitzuaren prezioa 1.500€an salduko dugu; gainera, horrelako zerbitzurik ez dagoela kontuan izanik, eta ikasketatan murgilduta gaudela gogoan izanda, irabaziko ditugun soldatak salmenta prezioarekin bat datozela deritzogu.

Proiektua 1.500€tan salduko dugunez, eta hilean lau herri ezberdinetara joango gara kontuan izanik, gure diru-sarrerak hilean 6.000€koak izango dira. Hala ere, hau herriko saio bat egiteko apur bat garestia iruditzen zaigunez, bidezkoa iruditzen zaigu herrian behintzat gure zerbitzua erostea denean bi saio eskeintzea, naiz eta agian kasu bereziren bat egon eta saio bakarrarekin nahikoa izan. Gainera, beste bat eskatuko baligute ez genuke inongo arazorik izango, horrek gure proiektuak aurrera egin nahi duela esan nahi du eta.

DIRU SARRERAK	HILABETEAN	URTEAN
Proiektuaren salmenta	$1.500 \times 4 = 6.000\text{€}$	$6.000 \times 12 = 72.000\text{€}$
GUZTIRA	6.000€	72.000€

Diru sarrera hauek ehunekotan adieraztean, kontuan izan behar dugu diru sarrera bakarra dugula, eta beraz, %100 a gure zerbitzutik jasoko dugula.

Orobat, badakigu guraso askok ez dutela behin baino gehiago joan nahiko, baina kontuan izanda kanpotik jendea Euskal Herrira bizitzera etortzen dela eta urteak pasa ahala hazi egiten garenez, nerabeak ezberdinak izango dira, eta ondorioz gurasoak ere bai.



Hala ere, irabazi garbiak izaten jarraituko genuke, gure diru-sarrerak hilean 6.000€ koak izanik eta gure gastuak 3.682€koak, hileroko lortuko genituzkeen irabaziaz 2.318€-koak izango lirateke, beraz urte betean 27.816€-ko irabaziaz izango litzuke gure enpresak.

Hau esanda espero dugu proiektua definitzerako orduan egin dugun lan honen bidez egunen batean gure lan hau aurrera ateratzea eta segurtasun ezak poliki-poliki bada ere desagertzea.